

Hernaniko haur eskola

Hernaniko haur eskola dagoeneko bukatuta dago. Bertako gelen koloreak, argi ugaritasuna, eremuen zabaltasuna, lorategia, bere igerileku txikia... gure begien gozagarri dira.

Azkenean, egia bihurtu den ametsa iruditzen zaigu: urteetan zehar hainbat erakundetan aldarrikatutako eraikin berria; behar beharrezkoa bertan haur gehiagok eskolaratzeko aukera izateko.

Nolanahi ere, urrun geratzen dira Hernaniko haur eskolaren lehenengo urrats haiek, dagoeneko hogeita hamar urteko ibilbidea baitu. Izan ere, guraso talde baten eskutik sortu zen eta haiek lanean zeuden bitartean beren seme-alabek kalitatezko zaintza eta heziketa izateko borrokatu zuten.



Hona hemen aipatutako ibilbide luze horren laburpena:

- 1975. urtea: Atzieta haurtzaindegia sortu zen 0-4 urte bitarteko neska-mutilentzat. Lan Ministerioaren dirulaguntza izan zuen.
- 1977. urtea: Txirrita haurtzaindegia sortu zen 0-6 urte bitarteko neska-mutilentzat. Osasun Ministerioaren dirulaguntza izan zuen.
- 1982. urtea: aurreko bi haurtzaindegiek bat egin zuten Langile ikastolarekin eta horrek 0-5 urte bitarteko haurrak hartu zituen.
- 1988. urtea: 0-3 urte bitarteko haurtzaindegia antolatu zen. 1988. urtean, estatuko gobernuak hainbat eskumen eman zizkion Eusko Jaurlaritzari.

Haurtzaindegia Foru Aldundiko Ongizate Departamentuaren ardurapean gelditu ziren.

- 1989. urtea: udalek bereganatu zuten haurtzaindegia zerbitzua eta Hernanin Marieluts Udal Haur Eskola sortu zen -gaur egungoa, hain zuzen ere-.
- 1990. urtea: Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea, LOGSE delakoa, onartu zen.
- 1991. urtea: haur eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen dekretua onartu zen.
- 1995. urtea: haur eskola Udalaren Hezkuntza Sailera pasa zen.
- 2006. urtea: irailean aro berri bat hastera doa. Hernaniko Haur Eskola Partzuergoko haur eskolen sarean sartu da.



Gehienaren antzera, gure haur eskola behar jakin bati erantzuteko jaio zen: 70eko hamarkadan lan merkatuan sartu ziren hainbat eta hainbat emakumeren seme-alabak zaintzeko.

Gainera, ez dugu ahaztu behar nolakoak izan ziren hasierak. Erakunde ofizialen diru laguntzarik gabe; edo jasotzen zenean, ezer gutxi. Eraikinei dagokienean berriz, zaharrak eta desegokiak gehienak: legeak gutxienezko baldintzak ere arautu gabe baitzituen oraindik. Hala ere, hasiera horietan indartsu ginen eta guztion partaidetzarekin, bai guraso, bai irakasle, eta baita herriko zenbait sektoreen laguntzarekin ere, egundaino iritsi gara. Garai horietan, nahiz eta bitartekorik ez eduki eta pobrezian moldatu (zozketetarako txartelak salduz, tonbolak ipiniz...) laster konturatu ginen nolako garrantzia zuen haurraren bizitzan lehen etapa horrek. Hasieran asistentziazkoa edo zaintzazkoa soilik zen lan hori hankamotz geratzen zela ikusita, eraldatu eta erantzun pedagogikoa indartzen saiatu ginen.

Hori dela eta, haur eskolen Koordinakundean sartu ginen. Aurrerago, Gipuzkoako Koordinakundea sortu zen, baita estatukoa ere, eta gu partaide izan ginen.

Hainbat urte joan dira geroztik!

Orain dela denbora dezente, 1979. urtean hain zuzen ere, Granadan egindako lehenengo jardunaldietan, estatu mailan "haurren eskola" kontzeptua sortu genuen. Hau da, "haurtzaindegia" izateari utzi eta "haurren eskola" bihurtzeko nahia plazaratzeaz gain, helburu hau lortzeko urratsak ematen hasi ginen. Edozein modutan ere, zaila izan zen bidea, izan ere, haurtzaindegia bakoitzaren sorreratik abiatu baiken, errealitate ezberdinetatik.

Gure kasuan, 1989. urtean Hernaniko Udalak bereganatu gintuen, eta alde batetik aurrera pauso handia izan zen, azkenean erakunde baten babesean baiken. Baina bestetik buruan genuen proiektu aurreratu hura alde batera utzi behar izan genuen: 0-16 urte bitarteko haurrez osatutako eskola orokorra, ziklo bakoitzaren berezitasunak errespetatuaz, noski.

Horrek guztiak, hezkuntzaren arloan genituen helburuak babestea, tinko mantentzea eskatzen ziren. Alegia, eskolak berezko dituen ezaugarrietara egokitu behar genuen zentroa, hau da, haur eskola "eskola formala" eta familiaren arteko abiapuntu bihurtzea.

Beraz, horrelatsu saiatu gara gure haur eskolaren proiektua aurrera eramaten, eta era berean, ikastetxeko curriculum lantzen.

Ikus ditzagun, bada, gure proiektuaren nondik norakoak:

ESKOLA BEREZIA.

Haur eskolak, hezkuntza bizitzaren lehen etapaz arduratzen denez, 0-3 urte bitarteko neska-mutilak hartuko ditu. Etapa horretan hezkuntza prozesua gurasoekin elkarlanean garatuko da. Berezko ezaugarriak ditu, hau da, ondoren datozen hezkuntza etapekin parekatuz gero, nortasun propioa; hurrengo hezkuntza etaparekin koordinatuta, hau da, herriko gainerako eskolekin harremanak izanaz.

GIZARTERATZEA ETA GIZARTE MAILAKO ESBERDINTASUNAK KONPENTSATZEA.

Gizartearen helburua da bere kideak gizarteratzea eta haur eskolak ere, dagokion heinean, ardura



hori onartzen du. Gizarte mailako desberdintasun eta gabeziak (murriztapen fisiko eta psikologikoak, kulturalak, ekonomikoak...) neska-mutillak jaio bezain laster finkatzen hasten direnez, horiek konpentsatu eta ezabatzeko haur eskolak egiteko garrantzitsua eta erabakigarria du. Horregatik, haur eskolak lehentasuna emango die era guztietako gabezia eta desberdintasunak jasaten dituzten neska-mutilei eta bakoitzaren egoera sozio-ekonomiko eta kulturalari egokitutako plan zehatzak egingo ditu.

HEZKIDETZA.

Hezkidetzaren helburua honako hau da: hezkuntza integrala ematea. Desberdin izatearen aberastasunaz jabetu eta gozatzea dakarrena, mutilen eta nesken inguruko ohiko kontuak eta bereizkeriak baztertuz eta sexu estereotipoak gaindituz. Hezkuntza etapa honetan sortu eta eratu ohi da haurraren nortasunaren oinarritzko egitura. Egitura horretan sexu desberdintasuna ezaugarri adierazgarri eta nabarmena da. Hori dela eta, aro egokia da hau, bai neska mutilekin bai horien gurasoekin, bi sexu genero horien alde positiboak lantzeko eta modu horretan ohiko rolak desmitifikatzeko.

Haur eskolak bere esku dauden bitartekoak jarriko ditu aipatutakoa horrela izan dadin.

ANIZTASUNA ETA BALORE DEMOKRATIKOAK.

Haur eskola hezkuntza zentroa den aldetik, guraso zein irakasleek defendatzen dituzten iritzi, aukera politiko, sozial, erlijioso eta moral guztiak erres-



petatuko ditu. Aniztasuna abiapuntutzat hartuta, ideologia ezberdinen arteko bizikidetasuna bultzatuko du haur eskolak, elkarri zor diogun errespetuaren alde lan egiteko.

Ideologia aniztasuna errespetatuz eta demokratikoki jokatzat bakarrik lortu ahal izango dugu Herriko biztanle guztiengana iristea eta horixe da, hain zuzen, haur eskolaren izaera publikoaren muina.

DOHAINTASUNA.

Hezkuntza haur guztien eskubidea da, eta beraz,

denon erantzukizun edo ardura, batez ere, administrazioarena. Horregatik, eta gizarte justu batek haur guztiei aukera berdinak eman behar dizkionez, haur eskola saiatuko da zerbitzu hau doan izan dadin edota gizarteko segmentu guztiek erabiltzeko aukera izan dezaten.

ESKOLA EUSKALDUNA.

Gure hizkuntz errealitatea abiapuntutzat hartuta (gizartearen helburua benetako elebitasuna lortzea da) eta euskara gure herriaren hizkuntza eta gure kulturaren ardatz nagusia dela kontuan izanda, haur eskolak euskara ikastea eta erabiltzea bultzatu du.

Adin honetako haurrak ez du oraindik bereganatu, egituratu, inongo hizkuntzarik. Guk euskara erabiltzeko ohiko harremanetarako eta beraiekin edukiak lantzeko. Ondorioz, hezkuntza etapa hau bukatzen dutenean euskaraz eskolatzeko aukera izango dute beraien gurasoak euskal hitzunak izan, ala ez. Hori garrantzitsua iruditzen zaigu euskara berreskuratzeko edo berreuskalduntzeko prozesuarentzat.

Haur eskolak Hernaniko egoera sozio kulturalaren ispilu izan behar du, eta alde horretatik, gure herriaren nortasuna definitzen duten kultur adierazpen garrantzitsuenak bultzatuko ditu: pertsonaiak (Olentzero), Kaldereroak, folklorea, musika... Hori lortzearen inguruko elkarte eta erakundeekin lan egingo dugu, behar izanez gero.

Azken finean, haur eskola gure herriko ingurune sozio kulturalan txertatuko da.

Amaitzeko esan, gurasoak aspaldi hasi zirela beraien seme-alaben eskoletan parte hartzen eta gaur egun hementxe daudela gurekin batera, udalarekin batera, kezkaturik batzuetan eta itxaropentsu beste askotan.

Gaur oso pozik gaude haur eskolaren eraikuntza berria dela eta. Beste nolabaiteko arazoak, gaurkoz behintzat, ahaztu egin nahi ditugu, eta une goxo honetan murgildu, beti ere bidean sortzen diren oztopoei aurre egingo diegun itxaropena izan dezagun, eta ez dezatela horiek gure gaurko poza lausotu.

